



Usurbilgo Udala



2014KO ABENDUAREN 22AN EGINDAKO EZOHIKO BATZARRALDIAREN AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Mertxe Aizpurua Arzallus A.

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaca A.
Josu Portu Alzaga J.
Jone Urdampilleta Urdampilleta A.
Enara Arbizu Irurtia A.
Iñaki Ugarte Aguirre J.
Jose María Rivadeneyra Sicilia J.
Eustakio Arrojeria Eguzkiza J.
Jose Ramon Furundarena Salsamendi J.
Luismari Ormaetxea Santsiñena J.
Miren Josune Urquia Carrera A.
Ricardo Crespo Rubio J.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin A.

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera A.

Ezin-etorria adierazi du: Josune Urkola Larrarte Ak.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2014ko abenduaren 22an, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Mertxe Aizpurua Arzallus izan da Batzarburua.

1.- 2014/09/30EKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek, 2014ko irailaren 30eko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2014KO AZAROAREN 17TIK ABENDUAREN 12RA (2014/1082 – 2014/1166)



Usurbilgo Udala



Alkatetzak 2014ko azaroaren 17tik abenduaren 12ra bitartean (2014/1082-2014/1166) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2015EKO AURREKONTU PROIEKTUA HASIERAZ ONARTZEA.

Alkateak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Aurrekontuak abenduaren 2an aurkeztu zirela eta ondoren ekarpenak egiteko epe bat ireki zela eta PSE-EEK eta Hamaikabatek egin zituztela ekarpenak adierazi du. Hauek Ogasun batzordean aztertu eta erantzuna ere eman zitzaizela adierazi du.

Jarraian, Alaitz Aizpuruari eman dio hitza.

Alaitz Aizpuruak adierazi du 2015eko aurrekontua guztira 10.482.469,89 eurokoa izango dela, 2014an baino 120.000 euro gehiago. 2011z geroztik izandako jaitzieraren ondoren igoera bada ere oso txikia dela azpimarratu du. Aurreikuspenei begira badirudiela esan du galdutako hori urte batetik bestera ezin izango dela errekuperatu.

Sarreretan azpimarratu du zuzeneko zergak mantendu egingo direla eta zeharkako zergetan igoera nabarmena emango dela, honen zergatia dela dio Ugartondon Babes Ofizialeko Etxebizitzen bi bloke eta etxebizitza tasatuen beste bi bloke eraikiko direla.

Sarreretan aipatzekoa dela dio ere Foru Aldundiak egiten duen ekarpena, aurten %3,35eko igoera izango duena.

Hirigintza aprobetxamenduak jasotzen dituen VI. Kapituluari 360.000 euro aurreikusten direla esan du urbanizazio proiektuaren onarpenaren ondorioz. Udal ondasunen salmentaren ondorioz ere beste 222.000 euroko diru-sarrera aurreikusten dela gaineratu du.

Diru-laguntzak, berriz, mantentzea aurreikusten dela aipatu du.

Diru-sarrerak aurrekontuetan zehazki egindako aurreikuspenak direla eta horretarako aurreko urteko aurrekontuak eta, batez ere, aurrekontu horren exekuzioa hartu dela kontutan aditzera eman du.

Gastuei dagokienez, I kapituluari, langilegoaren kostuari dagokiona, %3,75 inguruko igoera aurreikusten dela esan du, baina azpimarratu du ez dela soldataren igoeretatik baizik eta lanbide programetatik eta enplegu planetatik datorrela esan du.

Inbertsioetan, iaz baino zertxobait gehiago aurreikusten dela esan du. Jarraian, inbertsio nagusienak aipatu ditu: eraginkortasun energetikoa hobetzea, Belmonte kaleko konponketa, Askatasuna plazako jokoak, komun publikoa, bidegorri-sarea, Aginagako herri-bidea, Ariztixoko frontisa, Kiroldegiko aireztapena eta bestelako



Usurbilgo Udala



konponketak, bulderraren bigarren zatia, Zabaleko bidea eusten duen horma eta barredoraren erosketa.

Bestalde, azpimarratu nahi izan ditu eragile ezberdinei eta sail ezberdinetan ematen diren diru-laguntzak. Azken urteetan bezala, hauek mantendu egin direla esan du.

Gizartegintzan egiten den saiakera aipagarria dela esan du, ikusirik gainera egun gizarteak bizi duen egoera. Hemen aipatu ditu etxez etxeko zerbitzua, eguneko zentroa, familia esku-hartzeak, adineko pertsonentzako programak, osasun plana, buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako esku-hartzeak eta gizarte larrialdietan dauden pertsonentzako diru-laguntzak.

Halaber, garapen bidean dauden herrientzako diru-laguntzak ere bideratzen direla esan du.

Tokiko garapenak ere beraiantzat garrantzi berezia duela esan du. Azkeneko urteetan abiatutako lankidetzak hitzarmen horri proiektu berriak gehitzen ari zaizkiola esan du eta datozen urteetan ere tokiko garapena eskualde honetan indar berezi bat hartzen joango dela gaineratu du, lanketa eta proiektu ezberdinak martxan jarriko dituztelarik Beterriko sei udalek. Proiektu berrien artean aipatu ditu Ignoforo, Kooperatzen, hondakinen ikastaroa eta hauei lotutako enplegu kontratazio plana, auto-enplegurako zerbitzuak, enpresei diru-laguntzak. Proiektu guzti hauek Andoain edo Hernanitik koordinatzen direla esan du eta hori dela eta gure aurrekontuan partida guztiak zuzenean ez daudela jasota adierazi du, baina bai bi udalei egin beharreko transferentziak. Gaineratu du Lanbide eta Foru Aldunditik finantziazioa jasotzen dela gastu hauei aurre egiteko.

Tokiko garapenaren sail honetan eta zehazki herrira begira, Urbilago eta Siadekorekin egiten den elkarlana ezin dela ahaztu gaineratu du. Elkarlan horretan proiektu ezberdinak bideratu izan direla esan du.

Alkateak gainontzeko zinegotziei hitza eman die.

Luisuari Ormaetxeak hitza hartu du eta adierazi du beraien bozka aurkakoa izango dela. Batzordean adierazi zuen moduan, beraien taldeak, batetik, ekarpen batzuk aurkeztu ditu eta, bestetik, osotasunezko emendakin bat baita ere, eta bi hauetako ezer ez denez onartua izan beraien bozka aurkakoa izango dela jakinarazi du.

Batzarkideek, Ogasun Batzorde Informatzailearen erizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“2015 ekitaldirako Aurrekontu proposamena aurkeztu zuen Alkateak 2014ko abenduaren 2an. Behin proiektua aurkezturik, ekarpenak egiteko aukera ireki zen talde politikoentzat.



Usurbilgo Udala



Hamaikabat-ek eta PSE-k beren ekarpenak aurkeztu dituzte, eta hauek eta Alkatearen behin betiko proposamena abenduaren 16ko Ogasun Batzordean aztertu eta diktaminatu dira.

Batzorde honetan, beharrezko azalpenak eman eta gero, bozketara jo da.

Lehendabizi, Hamaikabat Udal Taldeak aurkeztutako osotasuneko zuzenketa bozkatu da, eta hurrengo emaitza jaso da:

Aldeko bozkak: Luismari Ormaetxea eta Ricardo Crespo

Aurkako bozkak: Mertxe Aizpurua, Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta eta Jose Ramon Furundarena

Abstentzioak: Josune Urkola

Bigarrenik, PSE Udal Taldeak aurkeztutako osotasuneko zuzenketa bozkatu da, eta hau izan da emaitza:

Aldeko bozkak: Luismari Ormaetxea eta Ricardo Crespo

Aurkako bozkak: Mertxe Aizpurua, Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta eta Jose Ramon Furundarena

Abstentzioak: Josune Urkola

Azkenengoz, Alkatearen Aurrekontu Proposamenari buruzko bozketa gauzatu da:

Aldeko bozkak: Mertxe Aizpurua, Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta eta Jose Ramon Furundarena

Aurkako bozkak: Luismari Ormaetxea, Josune Urkola eta Ricardo Crespo

Beraz, Ogasun Batzordeak abenduaren 16an osaturiko diktamenean, gehiengoz, Udalbatza Osoari egindako erizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak gehiengoz honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

1.- 2015eko Alkatearen proposamenari Luismari Ormaetxeak, Hamaikabat Udal Taldearen izenean aurkeztutako osotasuneko zuzenketa ez onartzea.

2.- 2015eko Alkatearen proposamenari Ricardo Crespok PSE Udal Taldearen izenean aurkeztutako osotasuneko zuzenketa ez onartzea.

3.- Alkatearen behin betiko 2015eko Aurrekontu Proposamena behin-behingo onartzea, hurrengo laburpena duena, eta erantsirik doan Aurrekontua gauzatzeko Udal Araua ere biltzen duena:



Usurbilgo Udala

EUSKAL HERRIA

USURBILGO AURREKONTU OROKORRA 2015

SARRERAK	2015
I Zerga zuzenak	2.854.100,00
II Zeharkako zergak	470.754,08
III Tasak eta besteak	1.970.494,68
IV Transferentzia arruntak	4.588.302,13
V Ondare sarrerak	14.700,00
Sarrera arruntak:	9.898.350,89
VI Inbertsioak besterenganatzea	582.119,00
VII Kapital transferentziak	2.000,00
IX Finantza pasiboak	0,00
Kapital sarrerak:	584.119,00
SARRERAK GUZTIRA	10.482.469,89

GASTUAK	2015
I Langile gastuak	3.752.155,05
II Ondasun eta zerbitzu arruntak	4.494.135,03
III Interesak	30.000,00
IV Transferentzia arruntak	816.880,00
Gastu arruntak	9.093.170,08
VI Inbertsio errealak	919.713,00
VII Kapital transferentziak	134.586,81
VIII Finantza aktiboen aldaketa	0,00
IX Finantza pasiboen aldaketa	335.000,00
Kapital gastuak:	1.389.299,81
GASTUAK GUZTIRA	10.482.469,89

4.- Behin hasieraz onartutako Aurrekontu Proiektua jendaurrean jartzea 15 egunez Iragarki Oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

5.- Jendaurreko epea iraganik, Aurrekontu Proiektua behin betirako onartua gelditzen denean, kapituluka laburtuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta bere kopia bat Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza jaso da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Iruiria, Iñaki Ugarte Aguirre, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.



Usurbilgo Udala



Aurkako botoak: Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

4.- 2015. URTERAKO LANPOSTUEN ZERREDA ETA PLANTILLA ORGANIKOA HASIERAZ ONARTZEA.

Alkateak azaldu du abenduaren 17an egindako Pertsonal batzordean eztabaidatu ondoren onartuta geratu zela eta printzipioz ez dagoela aldaketa handirik esan du. Soilik aipatu du ezgaitasun baten kasua zegoela, eta langile horren kasuan erreserba epe bat jarri zaiola.

Batzarkideek, Pertsonal Batzordearen erizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Alde batetik, Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. Artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 90.1 artikuluan jasotakoaren arabera, urtero Udal aurrekontuarekin batera Plantilla onartu behar da.

Bestetik, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. eta hurrengoetan eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legeak 13. artikulua eta hurrengoetan lanpostuen zerrenda arautzen du.

Horretaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, 14-15. artikuluetan jasotzen du Aurrekontua onartzeko jarraitu beharreko prozedura.

Gaia 2014ko abenduaren 17eko egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkek eman direlarik:

- Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua, Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Eustakio Arrojeria, Ricardo Crespo.

- Abstentzioa: Luis Mari Ormaetxea, Josune Urkola

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatza Osoak honako erabakia hartu du gehiengoz:

E R A B A K I A

LEHENENGO: Erabaki honi erantsita doan Usurbilgo Udaleko 2015eko Lanpostuen Zerrendari eta Plantilla Organikoari hasierako onarpena ematea.

BIGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea eta hamabost egunez erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal



Usurbilgo Udala



izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua izango litzatekelarik.

HIRUGARRENA: Behin betikoz onartu ondoren, bi dokumentuak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.“

Bozketa egin denean honako emaitza jaso da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi eta Ricardo Crespo Rubio.

Abstentzioa: Luismari Ormaetxea Santsiñena eta Miren Josune Urquia Carrera.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

5.- ATXEGANEA (SANTUENEA 35) BASERRIA BIRGAITZEKO PROIEKTUAREN ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBRA GAINEKO ZERGARI %50EKO HOBARIA APLIKATZEA.

Alkateak azaldu du baserri hau erorita zegoela eta egitura egonkortzeko proiektua aurkeztu zutela.

Ordenantza fiskaletan zehazten den moduan hainbat kasutan %50eko hobaria aplikagarria dela esan du, hain zuzen ere, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzen direnean, eta izendapen hau udalbatzarrak onartu beharko duela, interesatuak hala eskatuta.

Kasu honetan jabeak hobari hori aplikatzea eskatu duela adierazi du.

Atxeganeari buruz Arau Subsidiarioetako Testu Bateginak diona da “zurezko bilbapen ederrak, zurezko bilbapenez eta manposteriaz eraikia baitu hegoaldeko bere fatxada”, Arkitektoak bere txostenean dio bere interesa baduela eta mantendu beharrekoak direla eta Ondareen Katalagoko herri mailako interesa duten beste ondasun higiezin zerrendan dagoela, beraz, hobaria aplikatzea justifikatua dagoela.

Batzarkideek, Hirigintza Batzordearen erizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Esp. Zenbakia: HZ.06/2014-0505

MARIA ANGELES ZABALA ALTUNA andereak aurkeztutako idatzia aztertu da. Bertan, Santuenea 35ko Atxeganea, *Artzaienea*, baserria birgaitzeko proiektuko eraikuntza, instalazio eta obra gaineko zergari hobaria aplikatzea eskatzen du.



Usurbilgo Udala



ZIRKUNSTANTZIA SOZIAL, KULTURAL EDO HISTORIKO-ARTISTIKOA

Udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancón jaunak, eskaera aztertu ostean, ondoko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andereari
OBRA NAGUSIAK
TXOSTEN TEKNIKOA

SUSTATZAILEA: Maria Angeles Zabala Altuna
PROIEKTUA: Santuenea 35ko Atxeganea baserria birgaitzeko proiektua
KOKAPENA: Santuenea auzoa; Usurbil.
OBRA BAIMENAREN DATA: 2.014ko ekainaren 24ean

0.- AURREKARIAK

2014ko ekainaren 24ean TGB-k udal baimena eman zuen Santuenea 35ko Atxeganea, *Artzaienea*, baserriaren egitura sendotzeko.

1.- ESKABIDEAREN EDUKINA

Santuenea 35ko Atxeganea, *Artzaienea*, baserria birgaitzeko proiektuko EIOZ hobaria aplikatzea eskatzen da.

2.- ARAUDIAREN APLIKAGARRITASUNA

Usurbilgo Udalak behin betirako onartutako *Ondasun higiezinari buruzko zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak erregulatuko dituen ordenantza fiskala*, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2013eko abenduaren 17an 240. zenbakian argitaratua da.

Orain eskatutako hobariak *Eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zergaren ordenantza fiskal arautzaileen, VII. HOBARIAK* ataleko 11. artikuluan zehazten diren baldintzak bete beharko ditu. Zehazki a) puntuan honela dio:

a) %50ko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Alkatetzak, 2008ko martxoaren 13an, 2008/385 dekretuaren bidez, Usurbilgo Ondare Arkitektoniko, arkeologiko eta etnografikoaren katalogoa



Usurbilgo Udala



egiteko Aholkularitza eta Laguntza Teknikoaren kontratua esleitu zion Josu Tellabide Azkolain jaunari. Helburua, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak emandako zehaztapenak kontutan izanik, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Testu Bateginean txertatzeko katalogoa osatzea zen. Josu Tellabide Azkolain jaunak aurkeztutako azterlanean, Atxeganea baserriaz honela dio:

Aialdena Zaharretik medialineako horma batek bereizten du. XVIII. mendean biak berreraikiak izan ziren, eta garai hartakoak dira Atxeganearen zurezko bilbapen ederrak, zurezko bilbapenez eta manposteriaz eraikia baitu hegoaldeko bere fatxada.

Hortaz, justifikatua geratzen da zirkunstantzia kultural edo historiko-artistikoak daudela kasu honetan. Izan ere, 2013ko irailaren 10ean GAO-n argitaratutako Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren arabera, Artzaienea baserria Ondareen Katalogoan dago zerrendatua, hain zuzen, Ondare Arkitektonikoaren atalean 3. kategoriako *herri mailako interesa duten beste ondasun higiezinak* zerrendan (69. artikulua).

3.- ONDORIOA

Goian aipatutakoari jarraiki, Obra Baimenaren ondorioz ordaindu beharreko udal zergatan %50eko hobari eskaerari (EOIZ art. 11.a.) ALDEKO txostena idazten zaio, beti ere Udal Batzarrak hala onartzen duen artean.

Zure ezagupenerako eta bere ondorio egokietarako adierazten zaizuna.

Usurbilen, 2014ko azaroaren 24an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Joxean Erasun Arancón

BASERRIA BIRGAITZEKO PROIEKTUA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko ekainaren 24an, Santuenea 35ko Atxeganea, *Artzaienea*, baserriaren egitura sendotzeko udal baimena eman zion MARIA ANGELES ZABALA ALTUNA andereari.

Hirigintza Batzordeak, 2014ko abenduaren 11an egindako bilkuran, aho batez, Mertxe Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Eustakio Arrojeria, Luismari Ormaetxe eta Josune Urkolaren aldeko botoarekin Plenoari egindako erizpena kontutan hartuta, Udaltzatza Osoak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zergaren ordenantza fiskal arautzailearen baitan, Santuenea 35ko Atxeganea, *Artzaienea*, baserria birgaitzeko obra, duen interes historiko, artistiko eta kulturalagatik, interes berezikoa izendatzea.



Usurbilgo Udala



BIGARRENA: Santuenea 35ko Atxeganea, *Artzaienea*, baserria birgaitzeko proiektuko lanei ezarri beharreko eraikuntza, instalazio eta obra gaineko zergari %50 hobaria aplikatzeko agintzea dagokion ordenantzak xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaitzari eta interesatuari ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza jaso da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- UDALAK HILERRI BERRIAN HILOBIEN GAINEKO ESKUBIDEAK ESLEITU AHAL IZATEKO LOTE BERRI BATEN ESKAINTZA (7. LOTEA).

Jone Urdanpilletak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu. Zerbitzutako batzordetik diktaminatuta datorrela eta helburua lote berri bat eskaintzea dela esan du, 7. lotea, hain zuzen ere.

Aurrekarietan zehaztuta dagoela dio beste hainbat loteren emakida nola izan den. Kontzesio bidez esleitutakoak izaten direla esan du.

Emakidek 50 urtez iraungo dutela azaldu du eta hilobiek erabilera pribatua izango dutela baina jabetza eskubidea kasu guztietan salbu gelditzen dela dio, herri jabetzako ondasunak direlako.

Hilobi bakoitzaren prezioa ordenantzetan jasota dagoen bezala 2.590 €koa dela gaineratu du.

Bestalde, aldaketa moduan azpimarratu du zubietarrei ere emakida honetan parte hartzeko aukera eman zaiela.

Batzarkideek, Zerbitzuak Batzordearen erizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Espediente zkia:ID.05/2014/0523

Aurrekoak

1.- Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 22.1.d) eta 49. artikuluan emandako ahalmenez baliaturik, Usurbilgo Udalak Hilerr



Usurbilgo Udala



Berriaren Erregimen eta Funtzionamendua arautzen dituen Ordenantza Nagusia 2000ko irailaren 26an egindako bilkuran behin betikoz onartu zuen. (2000ko azaroaren 16ko GAOn argitaratua).

Arautegi horrek bi aldaketa txiki jasan zituen, bata 2002ko urriaren 29an onartu zuen Udalbatzak eta 2002ko abenduaren 4ko GAOn argitaratu zen. (Arautegi Nagusiko 39. artikuluan emakidaz esleitzeko AUKERETAN panteoiak bakarrik jaso ziren. Udalak kolunbarioak arautzeko aukera sartu nahi izan zuen eta Udalbatza Plenoak 2002ko urriaren 29an egindako bilkuran, Udal Hilerrri berriaren Erregimena eta Funtzionamendurako Araudi Nagusiaren aldaketa Haseraz onartu zuen aipatu aukera sartuaz.)

Bestea 2007ko irailaren 20ko GAOn argitaratu zen. Azken honetan Usurbilgo Hilerrri berriaren lurreratzeko eskubidea nortzuk izango duten finkatzen da. Horretarako arautegian artikulua berri bat sartu zen 12 zenbakiarekin eta honako testuarekin:

.Usurbilgo hilerrri berriaren enterramendu aukera izango dute

1.-Jatorriz Usurbilgoak direnak

2.-Gutxienez 15 urtetan Usurbilen erroldaturik egon direnak

3.-Usurbilen erroldaturik daudenak hiltzeko momentuan.

2.- Beste aldetik lotez lote hilerrri berriko panteoi edo hilobiak erabiltzeko eskubideak esleitzen joan da Udala dagokion espedientea izapidatu ostean.

Orain arte 6 lote eskaini dira eta honako esleipenak egin dira:

1. LOTEA

- AIZPURUA URANGA, IGNACIO
ZALDUA ITURZAETA, MARIA JESÚS
Sahatsa kalea, 9 (seiko hilobia)
- AÑORGA GALARRAGA, ANGEL
Makala kalea, 12 (seiko hilobia)
- ZALDUA ZALDUA, ELENA
Sahatsa kalea, 11 (seiko hilobia)
- ARRUTI SANTAMARIA, ASCENSIO
LARZABAL URDANPILLETA, JUANA
Makala kalea, 10 (seiko hilobia)
- MAYOZ ILLARRAMENDI, PEDRO MARI
ETXEBERRIA-BERREYARZA ZALDUA, Lucia
Altzifrea kalea, 11 (seiko hilobia)
- OLASAGASTI MUJIKA, FELIX
Makala kalea, 14 (seiko hilobia)



Usurbilgo Udala



- *ARRUTI LIZASO, JOSE FRANCISCO
USTOA GARTZIARENA, LUISA
**Altzifrea kalea, 13 (hiruko hilobia)
eskuina***
- *AIZPURUA URANGA, ANTONIO
Sahatsa kalea, 12 (seiko hilobia)*
- *ZALDUA ALTUNA, JOSE LUIS
URDAMPILLETA SANTA CRUZ, M^a ISABEL
Sahatsa kalea, 10 (seiko hilobia)*
- *AIZPURUA ZALDUA, IÑIGO
INTXAUSTI URRUZOLA, NEKANE
Sahatsa kalea, 13 (seiko hilobia)*
- *BORDA TORREGARAY, JOSE ANTONIO
Sahatsa kalea, 14 (seiko hilobia)*
- *GARMENDIA ALBERDI, MARIA CARMEN
**Altzifrea kalea, 13 (hiruko hilobia)
Ezkerra.
(Azken honek uko egin zion emakidari).***

2. LOTEA

- *Luis Maria Lizaso Gaztelumendi eta Maria Jesus Urkiola Cestau
Altzifrea kalea,9 (bi hilobi)*
 - *Joseba Ignacia Lizaso Peñagarikano
Altzifrea kalea, 9 (bi hilobi)*
 - *Juana Lizaso Peñagarikano
Altzifrea kalea,9 (bi hilobi)*
- 6 hilobi horiek panteoi berdinean**
- *Nieves Irazusta Agote eta Aizpurua Irazusta Senideak
Altzifrea kalea,10 (6 hilobiko panteoi bat)*
 - *Miren Arantxa , Itziar eta Angela Maria Vitoria Aranguren
Altzifrea kalea ,12 ezberra 10. kalearen aldekoa)(3 hilobi 6ko panteoian).*

3. LOTEA

Hirugarren lotea ere atera zuen Udalak dagokion espedientea izapidatu ostean. Espediente honen bitartez lau panteoi eskaini ziren emakida moduan emateko. Hala ere, lizitazio honetan eskaera bakarra aurkeztu zen . Hiru nitxo, hilobi osoaren erdia esleitu zitzaion honako Usurbildarrari:



Usurbilgo Udala



- *Elena Martiartu Aranguren*
Altzifrea kalea ,12 eskubia(3 hilobi 6ko panteoian)

Dena den lote honen emakida ez da gauzatu

4. LOTEA

Laugarren lote honetan eskeinitakoak honakoak izan ziren:Altzifrea kalea 13ko 3 hilobi edo panteoi erdia eta Altzifrea kalea 14ko 6 hilobi edo panteoi osoa .

Lehiaketan ez zen inor aurkeztu baina lehiaketa egin zenetik urte bete pasa baino lehen eskaera bat jaso zen eta zuzeneko prozedura erabiliaz honako esleipena egin zen:

- *ANGEL MAIZ LAZKANO, MARTIN ARRILLAGA MARTIN eta IZASKUN MAIZ LAZKANO* senideaki **Altzifrea kalea 14ko (6 hilobiko panteoi osoa)**

Demanda berri baten aurrean txosten bat eskatu Zitzaion Udal Aparejadoreari, emakida administratiboaren erregimenean lote berri bat eskaini aurretik hilerriko nitxoen okupazio maila jakitearren.

5. LOTEA

Beraz, 5. lote bat eskeintzeko aukera bazegoela ikusi zen eta Zerbitzu Batzordeak honako hilobiak eskeintzea proposatu zuen:

- Altzifrea kalea,13 ezkerre (3 hilobi edo panteoi erdia)
- Altzifrea kalea,7(6 hilobiko panteoi osoa)
- Altzifrea kalea,5 (6 hilobiko panteoi osoa)
- Altzifrea kalea,3 (6 hilobiko panteoi osoa)

Prozedura baten ondoren, honakoak gertatu ziren esleipedun:

- *BURDEOS-ko SAGRADA Familiaren Konkregazioa*
Altzifrea kalea 7an 6 hilobiko panteoi osoa
- *FRANCISACO SANTIAGO NIETO*
Altzifrea kalea 5 eskubian hilobi bakarra 6ko panteoian.

6. LOTEA

6. Lotean honako hilobiak eskeini ziren:

- Altzifrea kalea,13 ezkerre (3 hilobi edo panteoi erdia)
- Altzifrea kalea,5 (5 hilobi)
- Altzifrea kalea,3 (6 hilobiko panteoi osoa)
- *Altzifrea kalea 1ean (6 hilobiko panteoi osoa)*

Prozedura baten ondorioz honakoak gertatu ziren esleipendun:



Usurbilgo Udala



- *ANA MARI ZUMETA ETXEBERRIA*
Altzifrea kalea 1ean 6 hilobiko panteoi osoa
- *MARIA LUISA ETXEBERRIA BERREIARTZA*
Altzifrea kalea 3an 5 hilobi 6ko panteoian
- *MIREN IONE REKONDO AIZPURUA*
Altzifrea kalea 3an hilobi bakarra 6ko panteoian
- *ANGELA IBARGOIEN ALZAGA*
Altzifrea kalea 5 ezkerrean hilobi bakarra 6ko panteoian

Oraingoa

Orain berriz demanda berri bat izan da eta Zerbitzu BATZORDEAK Altzifrea kalean libre geratzen diren nitxoak eskaintzea proposatu du 7. LOTEAN , hauek hain zuzen ere:

- Altzifrea kalea 5 eskubian 2 nitxo
- Altzifrea kalea 5 ezkerrean 2 nitxo
- Altzifrea kalea 12 eskubian 3 nitxo
- Altzifrea kalea 13 ezkerrean 3 nitxo

Prozedura

Emakidak ofizioz edo partikularren eskariaz jar daitezke martxan. Kasu honetan ofizioz egiten da baina hilobiak eskuratzeko dagoen demanda kontutan hartuz.

Hilobiak, **zeharkako kudeaketa erregimenean** eta **kontzesio bidez esleitu nahi dira**. Beste aldetik **jardunbide irekia** aukeratu da eta Kontratuaren ezaugarriak kontutan izanik, esleipena **zozketa** bidez egingo da.

Horretarako hilobien eskubideak esleitzeko bete beharreko Lege, Ekonomi eta Administrazio Baldintzen Orriak prestatu dira. Egingo den jardunbidearen ondoren esleipen-hartzaile gertatzen diren lagunei eraikitako hilobien gaineko eskubideak emateko modua arautzen da baldintza orriotan.

Baldintza horietan xedatutakoaren arabera, emakidak gehienez 50 urte iraungo du, esleipena formalizatu eta dagokion kanona ordaintzen denean hasten delarik hilobien erabilera. Udalak hala erabaki zuelako onartutako Ordenantzari.

Hilobiak erabilera pribatua izango dute baina Jabetza eskubidea kasu guztietan salbu gelditzen da, herri jabetzako ondasunak direlako.

Emakidan emango den hilobi bakoitzaren prezioa **2.590 €**koa da.(6ko panteoi osoak 15.540 €ko prezioa du), Udal honek onaturiko 2014ko Ordenantza Fiskalekin bat etorriz.



Usurbilgo Udala



Edozein kasuan Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bategina onartzen duen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan xedaturikoa jarraituz eta azaroaren 3ko 33/2003 Administrazio Publikoen Patrimonioaren Legeko 93. artikulua eta ondorengoetan jasotakoaren arabera esleituko da emakida

Atal horretako 93. artikuluan , honela xedatzen da:

- *El otorgamiento de concesiones sobre bienes de dominio público se efectuará en régimen de concurrencia. No obstante, podrá acordarse el otorgamiento directo en los supuestos previstos en el artículo 137.4 de esta Ley, cuando se den circunstancias excepcionales, debidamente justificadas, o en otros supuestos establecidos en las leyes.*
- *Cualquiera que haya sido el procedimiento seguido para la adjudicación, una vez otorgada la concesión deberá procederse a su formalización en documento administrativo.*
- *Las concesiones se otorgaran por tiempo determinado . Su plazo máximo de duración no podrá exceder de 75 años, salvo que se establezca otro menor en las normas especiales que sean de aplicación.*

Araudi aplikagarria

1. Hilerrri Berriaren Erregimen eta Funtzionamendua arautzen duen Arautegi Nagusia
2. Hilerrri berriko hilobien gaineko eskubideak esleitzeko bete beharreko Lege, Ekonomi eta Administrazio Baldintzen Orri bereziak. Ihardunbide hau arautuko dutenak.
3. Azaroaren 3ko 33/2003 Patrimonioaren Legea (93. artikulua eta jarraipenekoak).
4. Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bategina onartzen duen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua
5. Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Erregimen Lokalari dagokionez, indarreko ebazpenen Testu Bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegilea, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen aurka ez doan heinean.
6. 1.955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioetako Zerbitzuen Erregelamenduaren 114tik 137rainoko atalak, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen aurka ez doan heinean.
7. Izaera osagarritz, Zuzenbide Administratiboko gainontzeko arauak eta, hauek ezean, *Zuzenbide Pribatukoak izango dira indarrekoak.*
8. Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia.



Usurbilgo Udala



Zerbitzu batzordeak, aho batez, Mertxe Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Eustakio Arrojeria, Luismari Ormaetxea eta Josune Urkolaren aldeko botoarekin Udalbatza Osoari egindako erizpena kontutan hartuta, honek honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: Hilerri berriko Altzifrea kalea 5 eskubian 2 nitxo, Altzifrea kalea 5 ezkerrean 2 nitxo Altzifrea kalea 12 eskubian 3 nitxo eta Altzifrea kalea 13 ezkerrean 3 nitxo en esleipenerako eta kontratazio-espeditzea izapidatzeko Usurbilgo Udaleko organuek duen ahalmena onartzea eta beregain hartzea, zeharkako kudeaketa erregimenean, emakida administratiboaren jardunbidea martxan jarriaz.

BIGARREN: Aipatu hilobien eskubideak EMAKIDA ADMINISTRATIBOAREN bidez esleitzeko jardunbidea arautuko duten KLAUSULA JURIDIKO EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBO BEREZIAK, ONARTZEA.

HIRUGARREN: Lizitaziorako espeditzea irekitzea eta eskabideak aurkezteko deialdia egitea (*azalean aipaturikoz gain Zubietarrei ere emakidan parte hartzeko aukera emanaz*) iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera eta egunkarietara bidaliz, lehiaketan parte hartzeko eskabideak iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeitamar egun iragan baino lehen aurkeztu beharko direlarik."

Bozketa egin denean, honako emaitza jaso da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- AGINAGAKO ERRIBERAN BIDEA ERABILERA PUBLIKOAN JARTZEKO ESPEDIENTEA.

Jone Urdanpilletak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu. Diktamen hau ere Zerbitzutako batzordetik datorrela esan du.

Helburua dela dio Aginagako erriberako bide guztia erabilera publikokoa izatea. Jada aurretik lau tramotan eginga dagoela dio eta oraingoan 5. tramoan, hau da, Eizazpi-Oriagain zatia erabilera publikokoa izatea lortu nahi dela adierazi du.

Kasu guztietan ez denez adostasunik lortu, desjabetze espeditze batera joan beharko dela esan du. Hala ere, honen aurretik proiektua hasieraz onartu behar dela eta jendaurrean jarri behar dela adierazi du.



Usurbilgo Udala



Jarraian, irizpideko puntuak irakurri ditu.

Batzarkideek, Zerbitzuak Batzordearen erizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Espediente zkia:HZ.11/2011-0176

Aurrekariak

Aginagako Oria ibaiaren erriberako nekazaritza suspertzearren , egun dagoen bidea bertan dauden baratze eta lursailen tartetik egina izan zen, jabe bakoitzak zegokion zatia utziz.

Bidea lau tramutan egin zen. Lehendabiziko tramuan *OROITZAPENA ETA IZARRAITZ ETXEEN INGURUTIK LERTXUNDI BASERRIRA* doan tramua eskuratu zuen Udalak.

Bigarren tramua , *AGINAGAKO MAPIL BASERRITIK LERTXUNDI BASERRIAREN ALDAMENERAINO*koa izan zen eta Udaltzako 2002ko azaroaren 26an egindako bilkuran hartutako erabakiaren ondoren egin zen.

Bide tramu horien erabilera publikoa bermatu ahal izateko , bidea igarotzen duen lursailen jabeekin hitzarmena izenpetu zuen Udalak , eta guztiak sinatu zuten Usurbilgo Udalaren alde erabilpen publikoko zortasuna onartzea .

Udalak hitzarmenean hartu zituen konpromisoak beteaz, esan bezala bide tramuak konpondu zituen eta geroztik mantenuaz arduratzen da.

Hirugarren tramuari dagokionez, Udaltzako 2007ko ekainaren 16an egindako bilkuran hartutako erabakiaren ondoren *ALTXUETIK hasi eta EIZAZPIRAINO*koa izatea espero zen . Halere lurjabe batzuekin arazoak sortu ziren eta *ALTXUETATIK LASTAOLA*rainoko tramua bakarrik egin zen, eta tramu horren barru gainera Galardiko lursailen zati txiki bat egin gabe geratu zen Galardiazpiko jabearekin adostasunik ez zelako lortu. Modu berdinean Lastaolatik Eizazpirainoko tramua egin gabe geratu zen lurjabearekin (Galarraga) adostasun batera ez zelako iritxi .

Laugarren tramua egiteko Nahitaezko desjabetzaren espediente jarri zen martxan baina Desjabetze legeko 24. artikuluan xedatutakoari jarraituz eragindako ondasun eta eskubideen titularrekin adostasuna eskuratzen saiatzea edo Elkarren arteko Baliospen Akordioa lortzen saiatzea erabaki zuen Udaltzako 2012ko martxoaren 27ko bilkuran.

Udaltzako erabakitakoari jarraiki lurjabe guztiarekin adostasuna lortu zen eta hitzarmenak sinatu ziren.Ondorioz,LASTAOLA-EIZAZPI bide tramua eraiki zen.(obrak EXCAVACIONES BERGARETXE S.L.k egin zituen).



Usurbilgo Udala



Oraingoa

Hasierako helburua lortzeko, hau da, Mapiletik hasi eta Txokoalderaino erriberako bidea konpondu ahal izateko 5. tramuari ekin nahi zaio EIZAZPI-ORIAGAIN bide zatiari.

Hori burutu ahal izateko Altxamendu topografikoa eta partzelarioa barne dituelarik Proiektu teknikoa aurkeztu du INFORLUR injinieritza enpresak

Argudioak

Lehen:Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arabera, Arau Subsidiarioak behin betiko onartzeak obrak onura publikoko deklaratzeko eta lursail horrek eta eraginpeko ondasun eta eskubideak nahitaez okupatzea eskatzen du.

176. artikulua:*Hirigintza-antolamendurako planak eta urbanizatzeko jarduketa-programak behin betiko onartzeak, bai eta lurzoru-ondare publikoak eratzeko edo handitzeko erreserbak ezartzeak ere, bi ondorio ekartzen ditu:lan horiek onura publikoko deklaratzeko, eta lursail horiek eta eragindako ondasun eta eskubide enparauak nahitaez okupatzea, desjabetzeari eta zortasunak ezartzeari begira.*

Bigarren:Lurzorari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 177. artikuluaaren arabera , honako kasutan aplikatu ahal izango da desjabetza:

b) Lursailak eta bestelako ondasunak eta eskubideak eskuratu nahi direnean , beharrezkoak direlako sistema orokorren eta tokiko sistemen sarean jarduketa integratuetan sartuta edo hariwei atxikiturik dagozkion zuzkidura publikoak egiteko.

Hirugarren:Desjabetze-prozedurari dagokionez , Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 178. artikulua haxe xedatzen du:

1.-Aurreko artikuluan jasotako nahitaezko desjabetzak arlo horretako legeriaren arabera izapidatuko dira. Hori hala izanik ere, lege honetan ezarritako zehaztapenak beteko dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen berezko antolamendu-egituran beharrezko egokitzapenak egingo dira.

2.-Aurreko parrafoa horrela bada ere organo desjabetzilea udala edo foru aldundia denean, udalaren edo aldundiaren-dagokionaren- erabakia baino ez da behar, desjabetze-legeriaren eskatutako ondasun eta eskubideak presaz okupatzeko deklarazioaren tramitea egiteko.

3.-Administrazio jarduleak bi prozedura erabili ahal izango ditu:baterako tasazioa edo banakako desjabetza(nahitaezko desjabetzari buruzko legiak arautzen du.

Laugarren: Aginagako erriberako bidea, indarrean dauden Usurbilgo Arau Subsidiarioetan Komunikabideen Sistema Orokorra bezala dago jasota Errepide 3. mailakoa eta EIZAZPI -ORIAGAINeko tramua egin ahal izateko INFORLUR injinieritzak eragindako proiektuan zehazten diren obrak premiazkoak dira , eta beraz, eraginpeko



Usurbilgo Udala



ondasun eta eskubideak presaz okupatzeko deklarazioa egin behar da. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 178.2 artikulua xedatutakoari jarraituz, deklarazio hori egiteko udalaren erabakia baino ez da behar.

Bosgarren: Desjabetze espedientea Derrigorrezko Desjabetze Legearen eta Araubidearen eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen xedapenetan oinarrituta izapidatuko da.

Goian aipatutako guztia ikusirik, Zerbitzutako Batzorde informatzaileak, Mertxe Aizpurua, Jone Urdanpilleta, Eustakio Arrojeria eta Luismari Ormetxearen aldeko botoekin eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, Udalbatza Osoari egindako erizpena kontutan hartuta, honek honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengo: Aginagako erriberako bidearen EIZAZPI-ORIAGAIN tramua egin ahal izateko INFORLUR injinieritzak aurkeztutako proiektua hasiera batean onartzea desjabetze helburuetarako.

Bigarren: Obra honen onura publikoa edo interes orokorra aitortzea; proiektuak eragindako lurretan okupazioa beharrezkoa dela aitortzea eta obra hori egiteko derrigorrezko desjabetzea egiteko administrazio espedientea hasia.

Hirugarren: Desjabetze eraginetarako, eraginpeko ondasun eta eskubideak eta euren titularren zerranda hasiera batean onartzea, proiektuko txosten justifikagarriak zehaztutako eta obra proiektuak kaltetutako ondasun eta eskubideen zerrendaren arabera.

Laugarren: Aginagako erriberako bidearen luzatze proiektua, desjabetzaren xede diren ondasun eta eskubideen zerranda eta euren titularrak jendeaurrean jartzea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea.

Bosgarren: Interesdunei jakinaraztea desjabetze espedientea, eta dokumentazio guztia ikusgai egongo dela udal bulegoetan, eta aldizkarian argitaratzen den egunetik 15 egun barruan, Usurbilgo Udaleko Hirigintzako bulegoetan proiektuari buruzko edo ondasun eta eskubideetan egon litezkeen akatsak zuzentzeko alegazioak aurkeztu ahal izango dituztela.

Aipatutako epe horren barruan alegaziorik aurkeztuko ez balitz, proiektua eta ondasunen zerranda behin betiko onartutzat har daiteke.

Seigarren: Desjabetze espedientea premiazko deklarazioa, hau da, eraginpeko ondasun eta eskubideak presaz okupatzeko deklarazioa egitea.

Zazpigarren: Alkate andrea ahalmentzea desjabetze jardun honen tramitazioa jarraitzeko beharrezkoak diren ekintzak egiteko.

Zortzigarren: Desjabetze legeko 24. artikuluan xedatutakoari jarraituz eragindako ondasun eta eskubideen titularrekin adostasuna eskuratzen saiatzea edo Elkarren



Usurbilgo Udala



arteko Baliospen Akordioa lortzen saiatzea. Adostasuna lortzen denarekin desjabetzapen espeienteza etenda geratuko da eta dagokion hitzmen sinatuko da.”

Bozketa egin denean, honako emaitza jaso da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Ricardo Crespo Rubio.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- USURBILGO UDALAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZU KONTRATUA BESTE URTEBETEZ LUZATZEA, 2015EKO URTARRILAREN 2TIK 2016KO URTARRILAREN 1A ARTE.

Jone Urdanpilletak diktamenari buruzko azalpenak eman ditu. Etxez etxeko zerbitzua eskaini ahal izateko, udalaren bi langileez gain enpresa bat dagoela kontratatuta esan du, Arreta Zerbitzuak enpresa, hain zuzen ere. Enpresa honekin 2010ean lau urterako kontratua formalizatu zela esan du, beste bi urtetarako luzagarria urtez urte. Oraingo hau, beraz, azken luzapena izango litzatekeela aditzera eman du.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzordearen erizpenak aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Espediente zkia: ID.05/2009-0441

Aurrekariak

- I.- Alkate-Lehendakariak etxez etxeko laguntza zerbitzua kontratatzeko beharrezko administrazio izapideak hasteko agindua eman zuen 2009ko irailaren 17an. Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2009ko irailaren 29an egindako ohiko bilkuran *Usurbilgo Etxez etxeko laguntza zerbitzua* esleitu ahal izateko kontratazio espedienteza onartzea eta prozedura irekita deitzea erabaki zuen.
- II.- Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2009ko azaroaren 24an egindako ohiko bilkuran Etxez etxeko zerbitzuaren behin-behineko esleipena ARRETA ZERBITZUAK S.L.enpresari egitea erabaki zuen.
- III.- Administrazio Baldintza Zehatzen Orrietan ezarritakoaren arabera, esleipendunak behin betiko bermea jarri zuen, orotara 7.178,75 eurokoa.
- IV.- Alderdiak kontratua formalizatu zuten 2010eko urtarrilaren 2an.



Usurbilgo Udala



V.- Kontratu horretako 3. klausularen arabera Kontratua burutzeko epea lau urtekoa da, hitzarmena izenpetzen zen egunetik kontatzen hasita, eta administrazio-baldintza zehatzen agirian ezarritako moduan luzatu ahal izango zen, hau da, beste bi urtez, urtez urte.

TXOSTENA

Kontratu hau arautzen duten Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Udalbatzak egindako esleipenaren erabakiaren arabera, zilegi da beste urte betez kontratu hau luzatzea.

Hasierako hitzarmen data 2010eko urtarrilaren 2an formalizatu zela kontutan harturik, oraingo hitzarmenaren luzapenak 2015ko urtarrilaren 2tik 2016ko urtarrilaren 1a arteko indarraldia izango du.

Kontratua burutzeko urte natural bakoitzari Foru Aldundiko tarifak aplikatuko zaizkio, eta berrikusi gabe gelditutako fakturak, Aldundiaren tarifa berriak onartu bezain azkar kitatuko dira.

Beraz, guzti hori ikusirik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak, 2014ko abenduaren 11ean egindako ezohiko bilkuran, Mertxe Aizpurua Arzallus, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, eta Luismari Ormaetxea Santsiñenaren aldeko bozkekin, aho batez Udalbatza Plenoari egindako erizpena kontutan hartuta, honek aho batez honako erabakia hartu du:

E R A B A K I A

LEHENENGO: Usurbilgo Udalaren etxez etxeko laguntza zerbitzu kontratua beste urte betez luzatzea, 2015eko urtarrilaren 2tik 2016eko urtarrilaren 1a arte.

BIGARRENA: Kontratua burutzeko urte natural bakoitzari Foru Aldundiko tarifak aplikatuko zaizkio, eta berrikusi gabe gelditutako fakturak, Aldundiaren tarifa berriak onartu bezain azkar kitatuko dira.

HIRUGARRENA: Esleipendunari dei egitea kontratuaren luzapen-agiria sinatzera Udalera etor dadin.

LAUGARRENA: Interesatuari eta kontuhartzaitzari erabaki hau jakinaraztea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza jaso da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Iruetia, Iñaki Ugarte Aguirre, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Ricardo Crespo Rubio.



Usurbilgo Udala



Beraz, erabakia aho batez hartu da.

Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:30ean eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.